

Ordizian, **2016ko abenduaren 22an** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza Jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Maria Jesus Soto andreak adierazi du ezin duela etorri.
Angelica Moreno andreak bere zinegotzi karguari uko egin dio.

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.-2016ko azaroaren 24an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2016ko abenduaren 1ean aparteko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 3.- Azaroko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 4.- EH-BILDUK aurkeztutako proposamena, espainiar polizia-indarrak erretiratzeko eskatuz, gure segurtasun-eredua lortzeko bidean.
- 5.- EH BILDUK aurkezten duen sare elkartearen mozio presoen eskubideen alde.
- 6.- Ur Partzuergoaren Estatutuak aldatzea.
- 7.-Angelica Moreno zinegotzi andreak bere karguari uko egin diola eta, horren berri ematea.
- 8.- 2016 ekitaldiko kreditu aldaketen berri ematea.
- 9.-Ordizia zabalik 2017.Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak hasierako izaeraz onartzea.
- 10.-- Eskaerak eta galderak.

ORDUTEGIA

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 20,10etan.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2016ko azaroaren 24ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2016ko azaroaren 24ko ohiko Osoko bilkurako akta onartzea

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte. Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV4, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



2.- 2016ko abenduaren 1ean aparteko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2016ko abenduaren 1ean aparteko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte. Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV4, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



3.- Azaroko Alkatetza Dekretuen berri ematea

Sukia andrea

Hamar dekretuen edukiez galdetu du, eta zehazki radar mugikorraren bidez ipinitako zigorrei buruz.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez informazio hori lortzeko hobe duela Idazkaritzara jotzea eta espedientea kontsultatuz era zehatzean horri buruzko informazioa jasotzea.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

4.- EH-BILDUK aurkeztutako proposamena, espainiar polizia-indarrak erretiratzeko eskatuz, gure segurtasun-eredua lortzeko bidean.

Proposamena

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratorik altuena duen herria da. Kalkuluaren arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle dituen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizia efektibo izan beharko lirateke. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 milioi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.

Bertako polizia indarrez gain, Estatuetakoa indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarkada luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren oinarritzko eskubideak justifikaziorik gabe murrizteko ekimenak: errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... Euskal Herritarren gehiengoak iragan hori gainditu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia heldu da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalean norabide horretan.

Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa dela uste dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko beste urratsa.

Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokitu beharko litzateke. Iraganean gertatu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuaren dentsitatea mantentzeko. Indarrean dagoen legediaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartu beharko litzukete herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.

Hau guztia kontutan izanik, Ordiziako EH BILDUK, honako ebazpen proposamena aurkezten dio Osoko Udal Batzarrari, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Udal honek, Espainiako Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Espainiako Armadaren errepliego osoa aldarrikatzen du.

2.- Udal honek, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 Legez besteko proposamenarekin bat eginik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio EAEko lurraldean egin beharreko errepliege plangintza burutu dezala eta Legebiltzarrean aurkeztu dezala, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

3.- Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.

4.- Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteari.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

Intsausti andrea

Mozioaren xedea azaldu du eta mozioan azaltzen diren lau puntu zehatzak edo eskaerak irakurri ditu:

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EH Bildu de Ordizia 5, Ordizia Orain 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak1)

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak bosgarren puntuaren berri eman du.

5.- EH BILDUK aurkeztzen duen sare elkartearen mozio presoen eskubideen alde

Proposamena

Euskal Herrian bizi izan dugun gatazkaren salbuespeneko legeriaren aplikazioa izan da eta da, gaur egun ere, konponbidearen baitan urratsak emateko oztopo nagusietako bat. Ezinbestekoa da, zuzenbidearen printzipio nagusiek adierazita bezala, zigortuaren eskubideak modu integralean errespetatzea eta aplikatuko den legeriak hori bermatzea. Aldiz, beste behin ere, Espainiako Estatuak kontrako jarrera du euskal presoekiko. Urteak dira Europako epaitegiek estatu desberdinetan jasotako zigorrak batzeko irizpidea onartua dutena eta gauzatzen ari direna. Espainiako estatuak ordea

Bi estatuen arteko zigorren batuketaz ari garenean, Frantziako eta Espainiako kondena ezberdinak zigor bakar batean bildu daitezkeela adierazi nahi da. Ez da oraingo kontua ez eta funtsik gabeko aldarrikapena ere. Europar Batasunak zigor metaketak egitea babesten zuen erabakia eman zuen 2008/675/ JAI ebazpenaren bidez.

Erabaki honen bidez, Europar Batasuneko partaide diren estatu ezberdinetako sententziak efektu berbera izan behar dutela zehazten da. Erabakia 2008. urtekoa izan arren, Espainiak ez zuen erabaki hau bere barne araudian sartu. 2014ko azaroan, Europako erabakia estatuko Araudian sartzerakoan, Espainiak lege berri bat egin zuen, europar erabakiaren norabidea aldatuz eta beste estatuetako zigorren batuketaren aplikazioa oztopatuz. Horrela, Frantziako kondena bete ostean, antzeko akusazioengatik bete beharreko estatu Espainiarreko zigorra, 0-tik hasten da, Frantzian betetako espetxealdia kontutan hartu gabe.

Hori dela eta, Europar Batzordeak azalpenak eskatu izan dizkio espainiar Estatuari. Espainiak ez du erantzunik eman. Are eta okerrago; ez dio 2014ko azaroko espainiar legearen berri ere eman Europar Batasunari.

Espainiako Auzitegi Gorenean eta Entzutegi Nazionalean gai honekiko iritzia kontrajarriak egon arren, gobernuan dagoen alderdiaren interesak gailentzen dira. Europako ebazpenek zer dioten jakin arren, Auzitegi Konstituzionalak bertan aurkeztu diren kasuak ez ditu tramitera ere onartu eta ez da gaia eztabaidatzera ere iritsi. Ondorioz Europako Giza Eskubideen Auzitegira bideratuko dira kasu hauek, oinarrizko eskubide eta askatasunak urratu izanagatik.

Egoera honek, dagoeneko zigor luzeak bete dituzten 48 presori eragiten die. Horietatik zazpi kalean beharko lukete dagoeneko, kondena osoa bete behar dutelako.

Hori hala izanik, Ordiziako Osoko Udal Batzarrak, honako erabaki hau hartzen du:

1.- Udal honek, Espainiako Estatuko botereek, Europako Epaitegietako ebazpenak betetzeari uko eginaz 48 euskal herritarren giza eskubideak urratzeko hartu duten jarrera salatzen du.

2.- Udal honek, Espainiar Estatuko botereei Europako Epaitegien ebazpenak gauzatu eta 48 presoek dagozkion zigor beharpenak aplikatzeko eskatzen du. Era berean dagoeneko kalean beharko luketen 7 presoek berehalako askatasuna exijitzen du.

3.- Udal honek Europako Giza Eskubideen Auzitegiari bere erabakia ahalik eta azkarren hartzeko eskaria egiten dio, denboran luzatzeak bereziki kalean egon beharko luketen presoek oinarritzko giza eskubideak urratzen dituelako.

4.- Erabaki honen berri, hertare, Europako Giza Eskubideen Auzitegiari, Espainiako Auzitegi Gorenari eta Espainiako Gobernuko Presidenteari emango zaie.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

Eguren in.

Mozioaren edukari buruzko laburpen bat egin du eta mozioak dituen lau puntu zehatzak irakurri ditu. SARE elkartearen eskaera dela argitu du eta EH BILDUK bere egiten duela mozioa, erabat ados dagoelako mozioarekin.

Sukia andrea

Bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela esan du presoek eskubideak inongo murrizketarik gabe bermatu behar direla uste duelako eta eskubide hauei dagokienez Europako zuzentarauak errespetatu behar direlako.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 5 (EAJ/PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak1)

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

6.- Ur Partzuergoaren Estatutuak aldatzea.

Proposamena

2016ko azaroaren 17an Gipuzkoako Ur Partzuergoak bidalitako idatziaren berri eman zen, horren bidez Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legea eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzeko Gipuzkoako Uren Partzuergoko Estatutuen aldaketa beharraren berri ematen zen.

Partzuergoaren Batzordeak 2016ko urriaren 27an Estatutuen aldaketa onartu zuen hasierako izaerarekin eta aldaketa erakusketa publikoan ipini zuen.

Aldaketa behin betiko onar dadin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 23. artikuluan oinarrituta, bertako kideak diren Udalek aldaketa onartu behar dute osoko bilkuraren akordio bidez.

2016ko azaroaren 14ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

- 1) Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Estatutuen 3. Artikulua aldaketa onartzea, eta honela idatzita geratzen da:

3.- Artikulua Nortasuna eta gaitasun juridikoa.

1. Kontsorzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.
2. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

2) Gipuzkoako Ur Partzuergoari bidaltzea akordio hau.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

Alkate jn.

Proposamena Osoko Bilkurarako Gaien batzordean aztertu zela azaldu du eta puntu batzuen inguruko zalantzak sortu zituela eta erabaki zen osoko bilkuran erabakiko zela puntua eztabaidatuko zen edo mahai gainean utziko zen, informazio gehiago lortu arte. Hala ere, uste du tramite hutsa dela eta beste Udal batzuk aldaketa egiten ari direla Partzuergoak proposatu duen moduan.

Eguren jn.

Galdetu du osoko bilkurarako gaien batzordean sortu ziren zalantzak argitu diren.

Sukia andrea

Ur Partzuergoan Udalaren ordezkari denak esan du ez duela egiteko aukerarik izan baina presarik ez duen gaia izanik proposatu du puntua mahai gainean uztea hurrengo osoko bilkurarako informazio gehiago izan arte.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 4, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak Sozialistak1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Gaia hurrengo osoko bilkura batean eztabaidatzeko geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak zazpigarren puntuaren berri eman du.

7.- Angelica Moreno zinegotzi andreak bere karguari uko egin diola eta, horren berri ematea

Proposamena

EAJ/PNV zerrendatik Udal honetako hautetsi izandako Angélica Moreno Heras andreak 2016ko abenduaren 12an aurkeztutako idatzia, arrazoi pertsonalengatik Zinegotzi karguari uko egiten dio.

Toki Erakundearen Araubide Juridikoaren, Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Araudiko 4. ataleko 9. artikulua ikusita, Udabatz Plenoari jakinarazten zaio.

EAJ/PNV zinegotziaren, ANGELICA MORENO HERAS andrearen uko egitea jakinaraztea.

JOSEBA ARAMBURU GANZARAIN jaunaren izendapena proposatzea EAJ/PNV alderdiak Udal honetan duen zinegotzi kargua betetzeko.

Hauteskunde Batzorde Zentralera bidaltzea akordio hau Batzordeak proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltzeko duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

Idazkari andrea

Azaldu du osoko bilkurari jakinarazteko ukapen formalizatuaren proposamenaren eredu arrunta erabili dela arrazoi pertsonalengatik uko egiten duten kasuetarako erabiltzen den eredu, hau da, *bere karguari dagozkion zereginak egitea galarazten dioten arrazoi pertsonalengatik* zinegotzi karguari uko egin diola.

Testuaren berri izanda, Moreno andreak Idazkariarekin hitz egin du eta esan du osoko bilkurari bere ukapenaren berri ematen zaion testuan ondorengoa kentzeko: *bere karguari dagozkion zereginak egitea galarazten dioten* zatia. Testuan arrazoi pertsonak direla eta soilik uko egin diola jasotzea nahi du eta beraz, osoko bilkurari horren berri emateko proposamena honela idatzita geratzen da:

EAJ/PNV zerrendatik Udal honetako hautetsi izandako Angélica Moreno Heras andreak 2016ko abenduaren 13an aurkeztutako idatzia, arrazoi pertsonalengatik zinegotzi karguari uko egiten dio.

Toki Erakundeen Araubide Juridikoaren, Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Araudiko 4. ataleko 9. artikulua ikusita, ondorengoa proposatzen da:

Osoko bilkurari jakinarazten zaio EAJ-PNVko zinegotzi den ANGELICA MORENO HERAS zinegotziak uko egin diola karguari.

JOSEBA ARANBURU GANZARAIN jaunaren izendapena proposatzea EAJ-PNV alderdiko Udal honetako zinegotzi kargurako.

Hauteskunde Batzorde Zentralera bidaltzea akordio hau Batzordeak proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

8.- 2016 ekitaldiko kreditu aldaketen berri ematea

Proposamena

**2016KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETEN KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA
KONTUAN IZANDA : UDALAREN 11. KREDITU ALDAKETA ARTE ETA SAN JOSE EGOITZAREN 1 .
ETA HERRI ANTZOKIAREN 1. KREDITU ALDAKETAK ARTE**

A)AURREKARIAK:

Aurten irailaren 23an Kontu-hartzaile aldaketa egon da eta kontu-hartzaile berriak komenigarria ikusten du, Osoko Bilkurari jakinarazi aurreko kontu-hartzaileak egin dituen kreditu aldaketen egoera, aurrekontuaren egonkortasuna, zor publikoaren helburua eta gastuaren arauaren ikuspegitik.

Eta aplikagarriak zaizkion arauak honako hauek dira:

- a) 1/2013 Foru Arauak, 2013ko otsailaren 8koa.
- b) Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2016rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

B) EGONKORTASUNA, ZOR PUBLIKOA ETA GASTU ARAUA:

B1)Egonkortasuna: Jarraibeak honako hau esaten du: *“Finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen artekoa..”.....*

...“ 2016ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela. Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.”

Gure kasuan azken 11. Kreditu aldaketa honako egoera dugu:

EGONKORTASUNA							
	1. KREDITU ALDAKETA UDALA	2. KREDITU ALDAKETA UDALA	3. KREDITU ALDAKETA UDALA	4. KREDITU ALDAKETA UDALA	5. KREDITU ALDAKETA UDALA	6. KREDITU ALDAKETA UDALA	
SARRERAK 1-7	14.041.783	14.041.783	14.041.783	14.041.783	14.041.783	14.041.783	14.088.913
GASTUAK 1-7	14.022.483	14.323.886	14.368.841	14.392.743	14.392.743	15.039.743	15.086.873
SUPERABITA	19.300	-282.103	-327.058	-350.960	-350.960	-997.960	-997.960
	7. KREDITU ALDAKETA UDALA	8, KREDITU ALDAKETA UDALA	1. KREDITU ALDAKETA SAN JOSÉ EGOITZA	9 ,KREDITU ALDAKETA UDALA	1. KREDITU ALDAKETA HERRI ANTZOKIA	10, KREDITU ALDAKETA UDALA	11, KREDITU ALDAKETA UDALA
SARRERAK 1-7	14.088.913	14.167.913	14.167.913	14.167.913	14.167.913	14.167.913	14.167.913
GASTUAK 1-7	15.086.873	15.165.873	15.165.873	15.165.873	15.211.289	15.211.289	15.211.289
SUPERABITA	-997.960	-997.960	-997.960	-997.960	-1.043.376	-1.043.376	-1.043.376

Hau da -1.043.376€ko defizita dugu. Hasierako aurrekontuan 19.300€ko superabita genuen, baina 1. Kreditu aldaketatik aurrera negatiboa izan da, beraz egonkortasuna ez du betetzen. Hori dela eta, hasiera batean plan ekonomiko bat egitera behartuta egon beharko ginateke.Salbuespen moduan jarraibideak honako hau dio: *helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz*

gertatu bada, ekonomiko-finantzarioaren ordezt, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluairen hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Ez-egonkortasuna sortu da Diruzaintza erabili delako, beraz ez da beharrezkoa, Plan ekonomikoa prestatzea eta horren ordezt, egoera Osoko Bilkurari jakinarazi beharra dago .

B2)Zor Helburua: Jarraibeak honako hau esaten du:

“1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2016ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2015ean likidatutako sarrera arrunten %80 baino handiagoa.”

2016rako hasierako aurrekontuaren arabera , kontuan izanda ez dela mailegu berririk eskatu honako hau da egoera:

ZOR BIZIA 2016ko abenduaren 31ean	4.606.269,25
2015ean likidatutako sarrera arruntak(1-5)	14.185.120,98
Finantzen iraunkortasuna	32,47%

Beraz betetzen da Zor helburua.

B3)Gastu araua: Jarraibeak honako hau esaten du:

“1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2015eko eta 2016ko urteen artean gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino handiagoa ez izatea.”

“Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomikofinantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondoriozt gertatu bada, planaren ordezt, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluairen hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.”

Gure egoera honako hau da:

GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

		1. KREDITU ALDAKETA UDALA	2. KREDITU ALDAKETA UDALA	3. KREDITU ALDAKETA UDALA	4. KREDITU ALDAKETA UDALA	5. KREDITU ALDAKETA UDALA	6. KREDITU ALDAKETA UDALA
GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA							
a1	2015eko exekuzio estimazioa gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63
a2	SEC doiketak[1]	0	0	0	0	0	0
a3	2015eko interesak	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015ean	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96
	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina (San Juan Egoitzaren gastua)	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67
b1							
b1	2016eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik)	14.022.483,00	14.323.885,85	14.368.840,59	14.392.743,02	14.392.743,02	15.039.743,02
b2	SEC doiketak[2]						
b3	2016eko interesak	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016ean	-2.446.175,00	-2.446.175,00	-2.446.175,00	-2.446.175,00	-2.446.175,00	-2.456.397,93
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina (azken 3 urteko batez bestekoa)						
=b1+b2-b3-b4	2016ko gastu konputagarria	11.523.043,00	11.824.445,85	11.869.400,59	11.893.303,02	11.893.303,02	12.577.210,09
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	-1,09%	1,50%	1,88%	2,09%	2,09%	7,64%

GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

		7. KREDITU ALDAKETA UDALA	8. KREDITU ALDAKETA UDALA	1. KREDITU ALDAKETA SAN JOSÉ EGOITZA	9. KREDITU ALDAKETA UDALA	1. KREDITU ALDAKETA HERRI ANTZOKIA	10. KREDITU ALDAKETA UDALA	11. KREDITU ALDAKETA UDALA
GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA								
a1	2015eko exekuzio estimazioa gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63	14.411.105,63
a2	SEC doiketak[1]	0	0	0	0	0	0	0
a3	2015eko interesak	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00	-69.495,00
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015ean	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96	-2.691.589,96
	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina (San Juan Egoitzaren gastua)	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67	11.650.020,67
b1								
b1	2016eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik)	14.022.483,00	15.086.873,02	15.165.873,02	15.165.873,02	15.211.289,48	15.211.289,48	15.211.289,48
b2	SEC doiketak[2]							
b3	2016eko interesak	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00	-53.265,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016ean	-2.446.175,00	-2.456.397,93	-2.456.397,93	-2.456.397,93	-2.456.397,93	-2.456.397,93	-2.456.397,93
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina (azken 3 urteko batez bestekoa)							
=b1+b2-b3-b4	2016ko gastu konputagarria	11.523.043,00	12.577.210,09	12.656.210,09	12.656.210,09	12.701.626,55	12.701.626,55	12.701.626,55
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	-1,09%	7,96%	8,64%	8,64%	8,64%	9,03%	9,03%

%1,8 baino iguera handiagoa eman da (%9,03) ; arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu da, eta planaren ordean, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egiten diogu Udaltzari.

Eztabaida:

Kontu-hartzaile jn.

Azaldu du bera Kontu-hartzaile lanpostuan kontu-hartzaile funtzioak eginez 2016ko irailaren 23tik dagoela eta egiaztatu ahal izan duela ez zaiola osoko bilkurari onartu diren kreditu aldaketen berri eman eta legeak horretara behartzen duela.

Aplikatu beharreko araudia betetzeko osoko bilkurari horren berri ematen dio.

Horrekin batera aldaketa horiei buruzko txostena erantsi duela azaldu du eta gai garrantzitsuenak labur azaldu ditu.

2016ko irailera arte onartutako kreditu aldaketen berri ematen da.

Ondoren onartu diren edo onartuko direnen berri emango dio osoko bilkurari berriro.

Osoko bilkurak kreditu aldaketen berri izan du.

9.- Ordizia zabalik 2017.Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak hasierako izaeraz onartzea.

Proposamena

Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei diru-laguntzak emateko ORDIZIA ZABALIK izeneko programaren oinarrien berri ematen da, 2017 urterako.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta jendaurreko erakusketan egongo dira hogeita hamar eguneko epean, interesdunek alegazioak, iradokizunak eta oharra aurkez ditzaten.

2016ko azaroaren 14ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIOA

LEHENENGOA: Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak hasierako izaeraz onartzea, zeinak akordio honen eranskin gisa jasotzen diren.

BIGARRENA: Oinarri hauek jendaurrean ipintzea hogeita hamar eguneko epean interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA: Iradokizunik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako akordioa behin betiko onartuko da, eta Alkate-Lehendakariak berariaz izango du akordioa argitaratzeko eta exekutatzeko ahalmena.

Eztabaida:

Alkate jn.

Aurreko ekitaldiarekiko programak izan dituen aldaketa garrantzitsuenak azaldu ditu labur.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV4, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.

10.- Eskaerak eta galderak

Alkate jn.

Hitza hartu du EH-BILDUK UDAL GOBERNUAREN PORROTA izenburuarekin etxeetan banatu duen aldizkaria salatzeke. Esan du egiazkoa den bakarra argazkiak direla.

Puntuz puntu erantzungo dutela ziurtatu du eta gainera datuekin egingo dutela.

Iturrioz jauna

Adierazi du argitaratutako esaldi eta eduki asko ez direla egiazkoak eta xehe-xehe argituko dutela.

Alkate jn.

Adibide gisa ipini du aurreko gobernuak 2014ko abenduan onartu zuen 285.000 €ko partida eta exekutatzeko gai izan ez zena, eta gogorarazi du 2016ko aurrekonturako Bustuntza-Altamira-Industrialdea lotuko dituen pasabiderako ezin izan dela egin denbora gutxi izan dutelako, exekuzio honen inguruko azterketa integral bat egiteko 60.000 euroko aurrekontu bat ez duela exekutatzeko denborarik eman zeren eta, gogorarazi du, 2016ko aurrekontuak 2016ko maiatzaren 26an onartu ziren. Gainera gogorarazi du EH-BILDUK gainera aitortu zuela guztia urtea amaitu arteko epean egitea zaila izango zela

Lanik ez dutela egiten ematen duenez, datu bat aurkeztu nahi du. Aurrekontuaren exekuzio maila, inbertsioetan izan ezik, %75ekoa dena, %80ra iritsi da nahiz eta aurrekontuak 2016an onartu, oso, oso berandu. Kritikek eta emandako datuek ez dute errealitatearekin bat egiten.

Aurreko urteetan aurrekontu exekuzioa honako hau izan da:

- 2015 urtea: %90
- 2014 urtea: %95
- 2013 urtea: %93
- 2012 urtea: %89.
- 2011 urtea: %88

Hirigintza arloan, Alkate jaunak gogorarazi du 2008 urtean UPABI 12 HIE erregularizatzeko eta legeztatzekeo prozedura martxan jartzeko hitzarmena onartu zela, kudeaketarako beharrezkoak diren plangintzari eta agiriei dagokienez. Galdetu du ea zergatik ez zen aurreko legealdian legeztatu.

Horrek ondorio esanguratsuak ekarri ditu. Diru-sarrerei dagokienez, eraikigarritasunaren hazkundeagatik diru-sarrera batzuk aurreikusten ziren eta,

- 2011 urtean aurrekontuan aurreikusi zen baina ez zen kobratu.
- 2012 urtean 314.000 €ko diru-sarrerak aurreikusi ziren eta 0 euro sartu zen.
- 2013 urtean 314.000 €ko diru-sarrerak aurreikusi ziren eta 0 euro sartu zen.
- 2014 urtean 314.000€ko diru-sarrerak aurreikusi ziren eta azkenean abenduaren 14an kobratu ziren.

UPABlri heldu zitzaion ezer kudeatu gabe eta beraiek egin behar izan dute dena. Obra legearen kontrakoa da.

Horren ondorio gisa, OHZ bidez jasotakoa 200.000 euro gutxiago da.

GARBIGUNE Eremuari dagokionez, 2007/2011 legealdian kudeaketa-lan guztiak burutu ziren, bai jabetzarekin kokaleku hau ahalbidetzeko bai aurrekontu gordailuari dagozkionak.

2011/2015 legealdian argazkia atera zen soilik.

2015 urtean eremuaren egoera, legez kontrakoa dena, jaso dute oinordetzan ezer aurreratu gabe, eta duela gutxi herritarren partaidetza programa jarri da martxan eremu horretan Arau Subsidiarioen aldaketa tramititzen jarraitzeko.

Esan du bi adibide direla soilik.

Aurreko legealdian landu ez diren proiektu asko lantzen ari direla esan du.

Eguren jn.

Erantzun dio esanez bitxia iruditzen zaiola gobernu taldea izatea oposizioari erantzuten diona. Azpimarratu du nahiz eta gobernu taldeak esan gezurrak edo datu okerrak direla aldizkarian ateratakoak, egia dela ez dela ezertxo ere egin Bustuntza pasealekuan, Oiangun... eta abar.

Esan du gainera alkatearen tonua beti oso harroa izan dela eta hitz egitean beti esaten duela nik egin nuen....., nik, nik, nik.....

Eguren jaunak jarraitu du esanez 2016ko azaroaren 3an osoko bilkurak aho batez onartu zuela LANDARLANek aurkeztutako ARALARen kontserbazioari buruzko mozioa, eta beraz, mozioan sartzen zen

puntuetako bat eta ondorioz onartu zena izan zen pistak zabaltzea aurreikusten zuen edo ENIRIO ARALAR mankomunitatean garrantzia duen edozein akzio plan onartu aurretik partaidetza prozesu bat zabalduko zela eta osoko bilkuran gaia aztertuko zela. Ez du galdetuko zein puntutan gelditu den mozio hori. Suposatzen du.

Duela gutxi, herenegun, abenduaren 20ko Zuzendaritza Batzordean, alkateak 2015-2019 Akzio Planaren eta garrantzi handiko beste puntu batzuen alde bozkatu zuen.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez berak mozio horren aurka bozkatu zuela eta horrek ez duela norabide batean bozkatzera behartzen ENIRIO ARALAR mankomunitatearen ordezkari eta lehendakari gisa doanean. EH-BILDUK zehaztutako estrategia dela uste du eta ez da joko horretan sartuko.

Eguren jaunari galdetu dio ea gogoratzen den nola Hondakinen Mahaian neurri eta kontsigna batzuk onartu ziren eta ez ziren bete.

Hain zuzen ere azkeneko Zuzendaritza Batzordean Ekintza Plan bat onartu da eta bere kontzientziak zuzendu du planaren alde bozkatzera 2.000.000 euroko laguntza bati ihes egiten ez uzteko eta 15 udalerriri mesede egiteko. Udalerriri horietatik 11 udalerritako ordezkariak zeuden Batzorde horretan, sigla desberdinetakoak, eta planaren aldeko 10 bozka izan ziren eta abstentzio bat.

Eguren jaunak

Galdetu dio ea jarrera horrekin jarraituko duen, osoko bilkurak agintzen diona ez entzunez eta bere gain ez hartuz.

Sukia andrea

Adierazi du demokrazia dela alkateak asumitzea eta obeditzea osoko bilkurak, organo gorenak, agintzen diona.

Dubreuil jn.

Adierazi du Alkateak kontzientziaz emandako botoa Onartu behar dela.

Alkate jn.

Oposizioari aurpegiratu dio udalaz gaidiko beste erakunde batzuetako ordezkariak ere ez dutela haiek ere akordio zehatz baten botoa eramaten osoko bilkuran aztertzeko.

Manolo Iturrioz

Jende artetik adierazi du oposizioak galderak prestatzeko denbora duen moduan, era berean gobernu taldeak denbora izan beharko lukeela egindako galderei erantzuteko.

.....

Juan Miguel Goiburu

Galdetu du ea zein puntutan dagoen desgaitasun portzentaien zatiketa, Administrazio lanpostuetan gordetzen den %7a betetzeko aukera izateko.

Dubreuil jn.

Erantzun dio esanez gaia langileen ordezkariekin landu behar dela eta akordioak islatzeko modu juridikoa aztertu behar dela.

.....

Eduarne Huesa

LANDARLANen ordezkariak adierazi du beraiek ere harritu egin zirela, Aralarren kontserbazioari buruzko beraien mozioa osoko bilkuran onartu eta gero, Alkateak Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordean Akzio Planaren alde eta pista berrien exekuzioen alde bozkatu zuela ikustean.

Mozioa Mankomunitatea osatzen duten udalerrietara bidali den galdetu du. Horrekin batera gaitzesten du Batzordearen deialdia 4 eguneko aurrerapenarekin bidali izana soilik gaiaren garrantzia eta agiri kopuru handia kontuan izanda.

Akzio Planean, Huesa andreak jarraitu du esanez planaren aldeko hainbat txosten badaudela baina badaudela kontrakoak ere eta ez dira aipatzen eta txosten horiek Aralar parke naturalizat kalifikatzen dute. Ordiziako Udalak gauzak mankomunitatean egiten dituen moduan egiten baditu, ez goaz ondo.

Adierazi du gainera Ingurumen Zaintzaren Programa obra hasi aurretik onartu behar dela eta beraiek behintzat ez dutela hori ikusi.

Azpimarratu du Mankomunitatearen Batzordean duela bi egun hartutako akordioa soilik ganaduzaleen eta artzainen interesak kontuan izanik hartu dela.

Alkate jn.

Osoko bilkuran aurkeztutako mozioa mankomunitateko udalerrietara bidaltzearen inguruan, Huesa andreak erantzun dio esanez Idazkariak osorik irakurri zuela Batzordean.

Sukia andrea

Argitu du mozioa irakurri zela berak eskatu zuelako.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.